

LAUAXETA

Gazte arotik maite zenduan
 Aberri menperatua,
 biotz barrendik sentidu zendun
 beren miñaren oiua;
 norbere ama ikusirikan
 indarkeriz zapaldua,
 zure bizia samindu jatzun
 biotz zauriz urratua.

Laguntza deia asmatu zendun
 seme leialen erara,
 al zan aiñean opalduteko
 amaren ezbearrera;
 Urtzi ta lurra emon eutzuen
 bultzada garra ortara,
 buru ta biotz eskeini ziñan
 Aberriaren miñera.

Lenen lenengo buruz argitu
 gizonen jakiturian,
 era-berean odolez gertu
 biotza maitasunian;

zure izkuntzak urratu zitun
 bide barriak errian,
 zure biotza gori-goririk
 abertzaletasunian.

Mutil gaztea amets betean,
 zenbiltzan lanez josirik,
 luma bizi az erri argitzen
 zuzentasuneen bidetik;
 erriarentzat gura zenduan
 askatasuna legetik,
 zure erriaz bat egin ziñan
 itz ta biotzez urturik.

Gero ondoren gaitz itzalena
 eldu zan gure errira,
 guda zakarra gorroto biziz
 erri ta mendietara;
 Gernikan artuz Gazteizera
 erun zinduzen iltera;
 Jainko maitatzen ta Aberri garrez
 odola-ixuriz lurrera.

PAULIN

BARRIEN BARRIZ

Barrien barriz alaitzeko
 bizia etorri dator bai;
 negutar lo baltza austeko
 etorbidez, zelairik zelai,
 izate-poza edatzeko
 udabarritar kantuz alai
 bizia odol barritzeko,
 etorri datorkigu, ernai.

Baña, ai!, bizidun bizia,
 ez al da, latseko uraren
 arriz ganeko ibilia
 edota, joan doanaren
 igesizko ots kantaria?
 ez al da itxasoratzearen
 pilpilkadazko doñuaren
 igarotze agurkaria?

OROITZA ZARRAK

Soiñekotu nagizue oroitzok.
 ¡Zartzaro baltzari darion otza!
 Ibaiak agortu diranez gero...
 ¡Au da au billustasunezko lotsa!

Soiñekotu nagizue oroitzok,
 ia ni naizen bezain gorputz zarrak;
 urrundik niganantza zatonenok
 ¡denpora iganaren sugarrak!

Nire oroitzok bigundu ogea,
 azkenengoz lo egingo dotana;
 sustraitik dator enbor izatea,
 egun batez ni etzungo naizena!

MUNIATEGI-tar SABIN